

FUNTZIONAMENDU ARAUAK
Ospitalizazioko Unitatea –NEUROLOGIA
Dei egin behar badiguzu, ERABILI GELAKO TXIRRINA
ARAU OROKORRAK GURE ZERBITZUAN ZAUDEN BITARTEAN

- Ospitaleratutako pazienteak zaren, zure osasuna berreskuratzen eta ezarritako arauak eta jarraibideak betetzen lagundu behar duzu, eta **osasun-sistemak eskaintzen dituen** zerbitzuak egoki erabiltzeaz arduratu. Ospitalizazio-unitatek borondatez irtetekotan, eskatzen dizugu **osasun-langileei kontsultatzea eta informatzea**, laguntza-asistentzialaren jarraipena bermatu ahal izateko; halaber, **ospitaleetik ez ateratzeko eskatzen dizugu**.
- Eskatu laguntza behar duzun guztietan, eta horretarako gelako txirrina erabili.
- Egunero pijama edo ohe-atorra jasoko duzu. Norberaren garbitasunerako, bainugela bat dago logelan, dutxa eta guzti.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Lagundu ospitalean ISILTASUNARI eusten.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeako unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurdunak edo lur gabeak.
- Zerbitzuaren beharrezkoak direla-eta, gela-aldaketa izan ahal da ingesatuta zauden bitartean.
- Norberaren datuen babeserako 2018/3 Lege Organikoaren arabera, ezin dizugu ingesaturik dagoen inori buruzko informaziorik eman, zuri dagokizu non dagoen jakitea.
- Ospitaleak ez du zure objektu pertsonalen inguruko ardurarik.

MEDIKUAREN BISITA


- Astelehenetik larunbatera 10:00etatik 15:00etara.
- Pazientearen eboluzioari buruzko informazioa bisita egin bezain laster ematen da.

OTORDUAK


08:45etik 09:30era Gosaria
 12:45etik 13:15era Bazkaria
 16:45etik 17:15era Askaria
 19:45etik 20:15era Afaria

BISITAK

- 08:00etatik 22:00etara.
- **Gehienez pertsona 1 paziente bakoitzeko.** Nahi izanez gero, senitarteko bat zurekin 24 orduz egon daiteke.

BESTE JAKIN BEHARREKO BATZUK


Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).


LAGUNTZA ETA HEZKUNTZA SANITARIOA

Une jakin batean beharrezkoa izango da senitartekoren baten presentzia alta ondoko zainketak nola egin ikasten laguntzeko.



Ospitaleratzearen egiaztatzea (enpresarako, familiako medikuarentzat edo senitartekoentzat), Harrerako Zerbitzuan jasotzen da, beheko solairuan, sarreran.


TXAGORRITXU OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007000

08:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono-zenbaki honetara deituta: 945000882. **Kanpora deitzeko**, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere dei dezakezu.



Telebista-zerbitzua ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira. Atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungitze-datarik; hortaz, berriro erabil daiteke. Matxuraren bat gertatu edo behar izanez gero, deitu 1422 edo 636 46 59 37 telefono-zenbakira. Telebista - eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke eta.


KAFETEGIA Orduategia: 07:30etik 22:00etara. **KAFETEGIAN ERDISOTOAN DAGO.**

Ate nagusiaren aurrean dago. Igogailuak dauden hall-ean kafe- eta freskagarri-makinak daude.



OSPITALEKO ALTA: medikuak erabakitzen du noiz eman alta. Ahal dela, bezperan emango zaizu horren berri. Komenigarria da alta egunean senitartekoren batekin izatea.

Alta ematen den egunean, komeni da gela uztea alta-txostena eman ondoren, ohea behar duten beste paziente batzuentzat prestatu ahal izateko.

Ohean dauden eta behar duten pazienteentzat egingo da anbulantzia eskaera.

Eskatu osasun-langileei ospitaleratzean entregatu dituzun medikazioa, txostenak, Sintrom-orriak eta abar.


ERLIJO ZERBITZU KATOLIKOA:

Harremanetarako telefono-zenbakia: **618 75 14 15**